



ZALDIBIAKO UDALA
ALKATETZA
(Gipuzkoa)

ETXOLETAKO HONDAKINEN KUDEAKETA **COVID-19 BIRUSAREN ONDORIOZ, BERROGEIALDIAN EDO** **GAIXO EGON DAITEZKEEN HERRITARREI EGOKITUTA**

Sasietatik jakinarazi digute Covid-19 gaixotasuna duten edo berrogeialdia (kuarentena) bete behar duten herritaren hondakin guztiak errefusa bezala tratatu behar ditugula.

Hau horrela burutu dadin, **BERROGEIALDIA BETETZEA EZARRI ZAIEN HERRITARREI ETA COVID-19 GAIXOTASUNA IZAN DEZAKETENEI ZALDIBIAKO UDALERA DEITZEKO ESKATZEN DIZUEGU 943 880 357.** Bertatik bideratuko dizuegu **egin beharreko guztiaren informazioa.**

Zaldibiako Udalak ondorengo neurriak eta bitartekoak zehaztu ditu berrogeialdian edo Covid-19rekin gaixo egon daitezkeen bizilagunen hondakin hauen kudeaketarako:

- **NOLA:** Covid-19 gaixotasuna duenak edo berrogeialdia bete behar duenak Zaldibiako Udalera deitu behar du. Telefonoz azalduko zaizkio eman beharreko pauso guztiak.
- **ZER:** Etxeetako hondakinak ezarritako prozeduraren baitan jasoko dira.
 - o Hondakinak 3 poltsatan sartzea beharrezkoak izango da.
 - o Segurtasuna bermatze aldera, gaixotuta edota berrogeialdian dagoen etxeko hondakin **GUZTIAK** errefusa moduan kudeatuko dira.
- **NON:** udal langileek bilduko dituzte hondakinak etxez etxe, jakinarazitako protokoloari jarraituz.

GAINERAKOAN, hondakin kudeaketa bere horretan mantentzen da. Pixoihalentzako etxoletan dauden edukiontzia erabili behar direla kontutan hartu.

Zaldibian, 2020ko martxoaren 22an.



Eztxus

EZTITXU MUJIKA MARIEZKURRENA
ZALDIBIAKO ALKATEA